

BENEDIKTO XVI.a KATEKISTA MUNDIALA

Azkeneko zenbakian, “Fedearen Urtea” aurkeztu neban eta zeintzuk ziran Aita Santuaren asmoak urte honetarako. Helburu horreek lortzeko mila eta mila ekintza jarri dira martxan Elizan. Nik neuk bat besterik ez dot aipatuko: Aita Santuaren ekintza eder bat. Bere asteroko audientzietan, fede gaiak katekesi gisan aztertzea. Ideia ederra eta oso egokia helduen katekesirako.

Eskertzekoa darabilen hizkera erraza eta sarritan sentibera. Esaera politak eta zirrargarriak eta biribilak ugari. Normalean frase laburrak erabiltzen ditu. Hitzaldi honeetako esaerekin antologia ederra eratu leiteke.

Berehala nabaritzen da irakasle argia eta bizkorra izan dala eta dogula orain be. Aldi berean sakona eta ulergarria. Bai gaiak aurkeztean eta bai aztertzean, hainbat galdera egiten ditu. Horrela hasieratik kokatzen dau gaia eta haritik urten barik adi-adi egoten laguntzen dau azkeneraino. Esaterako, lehenengo katekesian, “Zer da fedea?”, honelako galderekin hasten dau hitzaldia: Badauko zentzunik gaur egun fedeak, zientziaren et teknologiaren eskuetan makurtuta bizi dan gizartearentzat? Zer esan gura dau gaur sinisteak?

Gaurko munduaren egoera begi bistan jarri ondoren beste galdera honeek dakaz: Zer helburu dauko gure bizitzak? Badaukagu etorkizunik? Eta gure ondoren datozen belaunaldiak? Zelako bideak aukeratu geinkez frutu onak eta bizitza zorion-

tsua lortzeko? Heriotzaren ondoren zer itxaroten dogu? Amaituko ete dira gure arteko gorrotoak, gerrak, haserreak? Barnean daroagun justiziaren egarri bizia zelan ase? Egiten dogun guztia ez dala ona esaten deuskun kontzientziaren deiarri zer erantzungo deusagu? Erru barik hildako biktima errukarriei nork egingo deutsee justizia? Kriminalak eta zapaltzaileak izango ete dira garaile? Gizon-emakumeon kontzientziaren garra-siak bertan behera betirako isilduko ete dira?

Gaiak aztertzerakoan kultura zabaleko teologoa dala ikusten da, Urs von Balthasar handiaren antzekoa. Biblia sakon ezagutzen dau, bai Itun zaharra eta bai Itun barria. Eliz Gurasoen pentsamendua mende hartzen dau. San Agustin dau begikoena. Elizaren irakaspenak, batez be Vatikanoko II. Kontzilioarenak gogoko ditu. Historian zeharreko pentsalariak, lehengoak eta gaurkoak be, erraz eta ugari aipatzen ditu.

Fede gaiak azertzean, jarrera baikorra agertzen dau Aita Santuak. Ereilearen parabola gustukoa dau. Gaur be lur ona ez da faltako. Beti izango dira Jaunaren hazia gogoz eta pozik hartuko dabena, baita hazi hori arbuiatu eta oinperatzen dabena be. “Baina ereiten ez badogu, ez dago inondiko uztarik. Elizaren historiak erakusten dauanez, badago hazi ona eta badago uzta emoten dauan lur ona be. Gure eskuetan dago hazi ona ereitea”. Apaltasunez eta errespetuz eta konfiantzaz dihardu hazi ona ereiten Benedikto XVI.ak bere eguaztenetako katekesi hitzaldietan. Doktrina jatorra proposatu nahi dau, mundu osoak “salbamen-iragarpenaren bidez, entzunez sinistu, sinistuz itxaron eta itxaronez maitatu dagian”.

Fedea eta arrazoa

Jaungoikoaganako fedearren arrazionaltasunaren defendatzaile sutua dogu Aita Santua. Sinistea zentzuzko giza egite bat da. Fedea eta arrazoa alkarren eskutik oratuta doaz. Gizadiaren bi begiak dirudie. Eta biak alkarren beharrean aurkitzen

diranak. Gustura gogoratzen ditu San Agustin eta San Anselmoren esaera famatu hau: “fides quaerens intellectum et intellectus quaerens fidem”, hau da, “sinistu ulertzeko eta ulertu sinisteko”.

Bide hau izango da, Aita Santuaren ustean, San Paulok erabilia. Azalpen interesgarriak egingo ditu Apostoluaren bi testu honeei buruz. Bata Korintotarren epistolari dator: “Judutarrek mirari bila dabiz, gerkarrak, jakite eske; guk, ostera, Kristo gurutzeratua iragarten dogu, judutarrentzat gaizpide, eta gerkarrentzat zorakeria; deituentzat, ostera, nahiz judutar izan nahiz gerkar izan, Jaungoikoaren indar eta jakintza dan Kristo” (1Kor 1, 23 – 24) Beste pasarte erromatarren epistolari: “Jaungoikoaren betiko indarra eta jainkotasun ikusi ezinak, mundua sortu danetik egindakoen ezagueraz ikusten dira, eta, beraz, halako gizonak ez dabe zuribiderik” (Er 1, 20) Beste horrenbeste egingo dau San Pedrok be. Sarritan dakaz gogora Aita Santuak Pedro Apostoluaren berbak: “Ez izan arerioen bildurrik, ezta artegatu be; Kristo Jauna gurtu egizue zeuen bihotzetan, eta beti zuhur egon zaitezte itxaropenari buruz itandu dagitsuen edonori erantzuteko bigun eta lotsaz baina” (1P 3, 13 -15) Fedearen eta arrazoiaren bi begiekin hurbiltzen dira Jaungoikoarengana Elizaren zutabe irmoak diran Apostolu bikainak.

Horregatik ez dau onartzen Tertulianoaren pentsaera: “Credo quia absurdum” (Absurdoa dalako sinisten dot). Konparazino polit bat erabiliz, hauxe dino Benedikto XVI.ak: “Esaera honek ez dau balio fede katolikoa azaltzeko. Jaungoikoa ez da absurdoa, misterioa baino. Eta misterioa ez da ez-arrazoizkoa, egia-aren gainezka dagoana baino. Arrazoiak misterioa ilun ikusten badau, ez da misterioan argirik ez dagolako, argi gehiegi dago-lako baino. Eguzkiari begira zuzen-zuzen jarten bagara, iluntasuna besterik ez dogu ikusiko: baina nor esango dau eguzkia ez dala argiaren sorburu?”. Fedeak eta arrazoiak laguntzen deuskue “eguzkia”, Jaungoikoa, ikusten.

Jaungoikoaren hurreratzea

“Hain maite izan dau Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emon deutso; sinistea Beronengan jarri dagian inortxo be galdu ez daiten, betiko bizia izan dagian baino” (Jn 3, 16) “Jaungoikoa maitauna da, eta maitasunean dirauanak Jaungoikoarengan dirau eta Jaungoikoak beragan. Eta guk ezagutu dogu eta sinistu Jaungoikoak deuskun maitasuna” (1Jn, 4, 16). “Giza duintasunaren arrazoirik gorena, Jainkoarekin bat egiteko gizakiak duen bokazioa da. Gizakia bere sorreraz gero, Jainkoarekin elkarrizketara gonbidatua da; izan be, Jainkoak maitasunagatik egin zuelako eta maitasunagatik eusten diolako existitzen da; eta ez da egiaz bete-betean bizi, maitasun hura libreki ezagutzen ez badu eta Kreatzaileari bere burua ematen ez badio”. (Gaudium et Spes, 19).

Pasarte eder honeek dira Aita Santuaren katekesi-hitzaldien ardatza. Maitasunez eta umiltasunez datorkigu Jaungoikoa gugana. Jaungoikoa bera dator gure bila. Jaungoikoa leiala da eta maitasunean berak hartzen deusku aurrea. Fede munduan, Jaungoikoa ez jaku hurreratzen gu jatorrak eta onak garalako, bera maitasuna eta errukia besterik ez dalako baino. “Honetan agertzen da maitasuna, ez guk Jaungoikoa maite dogulako, Berak gu maite gaitualako baino”. Horixe bai dala kristau bihotzaren bihotza eta mamiaren mamia.

Konfiantzaz eta errespetuz

Halan be, Aita Santuak oinak lur gainean ditu. Badaki ateismoa hor dagola, baita eszeptizismoa be. Eta erlijio gauzetan hotzak direnak, parra-parra ugaritzen doaz. Eta zer egin holako egoeraren aurrean? Apaltasunez eta errespetuz, hiru urtenbide aipatzen ditu Jaungoikoaren urratsak aurkitzeko: izadiaren edertasuna, gizadiaren barnea eta Kristo Jesusen bizitza.

Lehendabizi, izadian bertan Jaungoikoaren aztarrenak sumatu. Bi testu aipatzen ditu. Bata San Agustinena eta bestea

Albert Einstein fisikoarena. Biok izadiari begira txundituta geratzen dira, badala izaki misteriotsu bat guzti hori oinarritzen dauana autortuz. Zeru-lurren bikaintasunaz eta harmoniaz liluraturuta makina batek sumatu dau Jaungoikoaren presentzia. Batez be olerkariak, mistikoak eta sentiberatasun fineko pertsonak. Zelan ez aipatu Frantzisko Asiskoaren “Izakien abestia” edo Joan Gurutzekoaren “Kantu espirituala”, edo Teresa Lisieuxkoaren “Zelinarek kanta”? Ze bikain abesten daben izadiaren Jaungoikoa! Merezki dau, esaterako, Teresa Avilakoaren esaldi hau aipatzea: “Jaungoikoak egin eban gauzatxo bakoi-tzean, txingurritxo batean bada be, ulertzen dana baino gehi-go dagoala uste dot”.

Baita ez dira gitxi, gizadiaren barnera begira be, Jaungoikoagaz aurkitu direnak. “Kontzientziaren ahotsa, Jaungoikoaren ahotsaren oihartzuna da”. Horra hor San Agustinen eta beste askoren esan ezinezko esperientzia sakonenak be. Nork ez ditu behin edo behin entzun Agustin santuaren berba hunkigarriok:

“Jauna, Zu goretsi nahian dabil gizona.
Zeuk eragiten diozu horretara,
Zeuretzat egin baigaituzu
Eta ez du onik gure bihotzak
Zuregan atsedean hartzen ez duen arte.

Bide bila nenbilen eta ez nuen aurkitzen.

Nire barnean sartu nintzen arte;
Eta, sartu nintzanean, argi miresgarria
Ikusi nuen nire arimako begiez
Nire barnean zeunden Zu
Eta atarian nenbilen zure bila”.

Baina izadiaren edo giza bihotzaren barne-barneko ezkutan sumatzen dan Jaungoikoaren aurpegia, beste inon baino hobeto, Jesukristogan aurkitzen dogu. Bera baita Jaungoikoaren argazkirik gardenena, argiena. Aintzat hartzekoak ditugu Aita Santuaren berbak: “Jesukristok ez deusku edozer gauza esaten Jaungoikoari buruz, bera baita egiazko Jaungoikoa gizon egina”. “Jaungoikoak deuskun maitasuna honetan agertu zan; Jaungoikoak bere Seme bakarra bialdu ebala lurrera, gu bere bitartez bizi gaitezana” (1Jn 4, 9). Orain arteko Aita Santuaren katekesi ederrenak, Jesukristori buruz egindakoak ditugu. Jesukristori begira sumatzen dau nor dan egiazko Jaungoikoa eta nor egiazko gizona. Horretaz, hurrengo zenbakian jarraituko dot.

A. Olea